

# txintxarri



## Urteko gaiak umorez hartzeko garaia

Azoka, dantza, pala txapelketa eta parodia. Santa Ana lagun eta senide artean ospatu dute lasarteoriarrek / 6-9

orain presoak



R.P.S. 175/15 I.L.G.

Gure betaurreko guztiak  
2018 bildumakoak dira

%  
des  
kon  
tua **30**

**EGUZKITAKO  
BETAURREKOEN  
bilduma BERRI  
GUZTIETAN**

Arrasate • Beasain • Bergara • Donostia  
Eibar • Errenteria • Irun • Ordizia • Tolosa

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE-ORIA**

[www.multipopticasgipuzkoa.com](http://www.multipopticasgipuzkoa.com)   

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan



Zinegotziak ez ohiko udalbatzarrean, joan den asteartean. TXEMA VALLES

## Euskara, berriz ere oztopo udalbatzarrean

EAJk jarritako helegitea baztertu du udalbatzarrak ez ohiko bilkuran, eta udaltzain kaporalei euskarazko bigarren profila eskatzea berretsi du. Estitxu Alkorta zinegotziak salatu du hizkuntza eskakizuna behartzeko txostenean "kontraesanak" daudela

### Adrian Garcia

Badira 40 urte euskara ofiziala dela EAEn. Euskararen Legea onartu zutela ere 30 urte baino gehiago igaro dira, besteak beste administrazio publikoan euskara normalizatzeko helburuarekin. Dena den, alderdi politiko batzuentzat hizkuntzak traba izaten jarraitzen du. Esaterako,

udalbatzarreko udal ordezkari gehienentzat. Agerian geratu da hori aste honetan eginiko ez ohiko udalbatzarrean; udaltzain kaporal posturako hizkuntza eskakizunak apaltzea berretsi dute, EAJ eta EH Bilduren aurkako bozkekin; hirugarren profilaren ordez, bigarrena eskatuko dute. Bestalde, aho

batez onartu dute ikerketa toponimotik ondorioztatutako nomenklaturari behin-behineko izaera ezartzea, eta leku izendegi ofizialak behin-behineko izaeraz onestea.

Lourdes Acevedok zuzendu du batzarra, Jesus Zaballos alkateak ez baitu parte hartu. EAJko Jon Antxordoki eta PPko Alejandro

Saenz ere ez dira agertu, eta EH Bilduko Gorka Lizarraga behin hasita zegoela iritsi da.

Ekaineko udalbatzarrean adostu zuen gehiengoak kaporal agenteei hizkuntza eskakizun horiek beharrezkoa. Halere, erabaki horren aurka helegitea jarri du EAJk, eta berriro hartu dute gaia esku artean. Estitxu Alkorta zinegotzi jeltzaleak oroitarazi du Jesus Zaballos alkateak esana dela "erabaki politikoa" zela. Orain, ordea, txosten bat jaso dute arrazoi teknikoekin, argudiatzeko zergatik ezarri duten bigarren profila. "Arrazoa eman diguzue; txosten hori beharrezkoa zen. Justifikaziorik ez duena ezin da arrazoitu, baina horretan saiatzen da txostena". Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria ere bada Alkorta.

### "Kontraesanak"

Txosten horren kontraesanak azaldu ditu EAJko ordezkariak: "Batetik, HSP Hizkuntza Politika Sailburuaren gomendioak betebeharrezkoak ez direla nabarmentzen du, baina gero horiek aipatzen ditu komeni zaionean". Haren ustetan, loteslea den bakarra da 2013an udalbatzarrak hartutako erabakia. "Orduan behar bezala bete zen prozedura, ez orain bezala". Udaleko Euskara Batzordeko teknikariek arrazoitu zuten orduan posturako hirugarren profila beharrezkoa zela.

Arkaitz Naya ADLOP Ahal Du Lasarte-Oria Pudeko ordezkariak erantzun dio Alkortari. 2013an hartu zuen udalbatzarrak kaporal agenteei hirugarren profila

eskatzeko erabakia. Ordu hartan alde bozkatu zuen ADLOPe, baina orain iritziz aldatu du. Haren esanetan, "eraginkorragoa" behar luke udaltzaingoak; horregatik apaldu behar dira hizkuntza eskakizunak.

Acevedok ere gehiengoaren erabakia defendatu du, eta kargu hartu dio Alkortari: "Zuen aurka dagoena ez dago euskararen aurka, udal honetako alderdi askok aurkeztu duten moduan". Haren arabera, 2013an erabakiaren aurka agertu zen PSE-EE, "neurritza egindako araua" zelakoan. "Hirugarren profila zuten bost udaltzaintzat zeuden eginak bost plazak".

### Oinarrizko eskakizuna

EH Bilduk ere parte hartu du eztabaidan, eta udalbatzarraren erabakiaren aurka egin du. Pablo Barrio bozeramaileak salatu du prozedura urratu dela. "Txosten bat jaso dugu, baina ez du inork sinatu. Edonork idatzi ahal izan du".

Nolanahi ere, nahiz eta PSE-EE eta ADLOPe zinegotziek "gehiegizkotzat" jo hirugarren profila eskatzea udaltzain kaporalei, D ereduko Batxilergoko ikasle gehienek duten maila da. Hain zuzen, HABE Helduen A l f a b e t a t z e r e t a B e r r e u s k a l d u n t z e r a Erakundeak honela definitzen du hirugarren profilari dagozkion gaitasunak: "Eremu profesional, publiko zein pertsonalean ikasleak era guztietako informazioa euskaraz trukatzeko gai izatea era landu eta jantzia, ahoz zein idatziz". Beste hitz batzuetan esanda: ofiziala den hizkuntza menperatzea.

## Tamaina handiko zaborrak ateratzeko egunak eta orduak

Azken aldiko jarrerak salatu ditu udalak, eta "gizalegerik gabeko jokabideak" ekiditeko, isunak jarriko ditu udaltzaingoak

### Txintxarri

Azken aldian tamaina handiko zabor asko biltzen ari dira Lasarte-Oriako hainbat puntutan. Askok edozein egunetan uzten dute zaborra kalean, eta, hori saihesteko, zabor horiek ateratzeko egunak eta orduak zehazten dituen kartelak itsatsiko dituzte ontzi

arinaren eta paperaren zaborrontzietan.

Udal ordezkariak susmoa dute kanpotik jende asko etortzen dela Lasarte-Oriara zabor horiek uztera, eta, beraz, jarritako baldintzen betetzea ziurtatzeko, udaltzaingoak herriko 52 zabor puntu behatuko ditu.

Astean behin atera ahal izango dituzte bizilagunek tamaina handiko hondakinak: asteazkenetan, 20:00etatik 24:00tarako ordu tartean. Ostegunak jai direnean, berriz, asteazkenetan jasoko dira zaborrak, eta, beraz, asteartetan atera beharko dira, ordutegi berean.

Obra hondakinak, komun ontziak, bateriak, margo hondakinak, gurpilak eta paletak ateratzea debekatuta dago. Koltxoiak, mahaia, aulkiak, armairuak, lanparak eta besaulkiak dira atera daitezkeenak.



Sasoeta ibilbidean, Buruntzaldea kalean, pilatzen da zabor gehien. TXINTXARRI



Basaundi Bailarako festen artxiboko irudi bat. TXINTXARRI

# Basaundik saninazioekin amaituko du uztaila

San Inazio Jaiak ospatuko dituzte Basaundi Bailarako auzotarrak astelehen eta asteartean. Urtero bezala, adin eta gustu guztientzat pentsatutako egitaraua osatu dute; eguraldiak lagundu edo ez, giro bikaina ziurtatua izango dute auzoan

## Txintxarri

Udak hori du; eguraldi eguzkitsua eta festak nonahi. Eguraldiarena ezin daiteke ziurtatu, baina festara ateratzeko aitzakiarik ez dute izango lasarteoriatarrak. Zabaletako jaiakin hasi zuten udako festaldia, eta sanpedroak ospatu dituzte gero. Oriakoak igaro berri dituzte, eta saninazioekin amaituko dute hilabetea Basaundi Bailaran.

Beste urtebetez, ekintza ugariz beteriko egitaraua osatu dute. Adin eta gustu guztietarako hamaika ekintzatan parte hartzeko aukera izango dute lasarteoriatarrak.

Astelehen arratsaldean buruhandiek emango diote hasiera festari, eta horien ostean etorriko dira gainerako ekintza guztiak: apar festa, kirol saioak, pintxo-potea eta musika saioak.

Asteartean ere izango da zerekin gozatu. Galeper jaurtitzera joango dira goizean goiz auzotarrak, eta haurrentzako eta helduentzako ekintza ugari izango dira egun osoz.

## Jaien egitaraua

### Uztailak 30

- **18:00:** Buruhandiak.
- **18:00:** Apar festa.
- **18:30:** Ezkondutakoekin eta ezkongabeen arteko futbol partida.
- **19:00:** Zunba erakustaldia, Basaundi bailarako plazan.
- **19:30:** Pintxo-potea auzoko tabernatan.
- **19:30:** Gau Txori txaranga.
- **21:00:** Ibai Berriak taldearen emanaldia, Basaundi bailarako plazan.

### Uztailak 31

- **08:00:** Galeper-jaurtitzera, Zapal zelaian.
- **09:00:** Martxa erregulatua. Irteera Basaundi bailarako plazan.
- **11:00:** Haur jolasak eta buruhandiak, Basaundi bailarako plazan.
- **11:30:** Meza nagusia, Oriako Karmengo kaperan.
- **12:00:** Txoko herrikoia, frontoian.
- **12:30:** Bote eta toka txapelketak, Basaundi bailarako plazan.
- **14:30:** Bazkaria, Buruntz-Azpi elkartearen.
- **16:30:** Mus txapelketa, Basaundi bailarako plazan.
- **17:00:** Gaztelu puzgarriak, Basaundi bailarako plazan.
- **17:30:** Haurrentzako askaria.
- **18:30:** Patata-tortilla txapelketa, Basaundi bailarako plazan.
- **20:00:** Jai amaiera musikala Indian Feather taldearen eskutik. Kultur Kale Zikloko kontzertua.



TXINTXARRI

## 'Altza Porru' eta diskoa opari

Hilabete honetan ere bazkideen arteko zozketa egin du Ttakun Kultur Elkarteak, eta Iñaki Olano izan da oraingoan irabazlea. *Altza Porru* komiki liburua eta Korrontzi musika taldearen diskoa eraman ditu etxera. Abuztuko oporraldiaren ostean, berriz ere zozketatan parte hartu ahal izango dute bazkideek.



ERKETZ EDT

## Erketzeko dantzariak, Zinemaldian

Erketz EDTko dantzariak *Dantza* filmean parte hartu dute; Donostiako 66. Zinemaldian estreinatuko dute lan hori. Sail Ofizialean proiektutako dute film luzea, nahiz eta ez den gainerako lanekin lehiatuko. Maiatzean Leitzañan egindako grabaketetan parte hartu du Lasarte-Oriako dantza taldeak, eta azken emaitza ikusteko aukera izango da orain. Iralera arte itxaron beharko da, Donostiako Zinemaldia abiatu arte.



**2019ko IRTEERAK**  
LASARTE-ORIAIK, NOAOAK GIDATUTA

**NOAOA**  
BIDAIK

943 37 36 13

info@noaua.eus

noaua.eus

BIDAIK  
TALDEAN



Igande osoan ibili dira herritarrek azokako postuetako produktuak ikusten eta erosten. TXINTXARRI

# Erosketa zorroak goraino beteta

Sendoki elkarteak Santa Anako azoka antolatu du 34. aldiz. Uztaileko azken aurreko asteburuko zita ohitura bihurtu da herritarrentzat, eta ez dute aukera alferrik pasatzen utzi: dozenaka postutako produktuak ikusten eta erosten pasa dute igandea

## Iñigo Gonzalez

Artisautza plazara atera da asteburuan. Sendoki elkarteak 34. aldiz antolatu du Santa Anako azoka; 50 postu baino gehiago eduki dituzte lasarteoriatarrek aukeran, Okendo plazan eta Antonio Mercero gunean. Uztaileko azken aurreko asteburuko zita ohitura bihurtu da; herritarrek ez dute hutsik egin, eta hainbat produktu ikusi eta erosi dituzte. Arropa, eskuz egindako saskiak eta pilotak, errokilak, pastelak, hestebeteak, txorizoa, gazta, euskal pastela, ukenduak, zapatak... Erosketa poltsa goraino beteta etxeratu zen erosle bat baino gehiago.

Etxeko txikienek ere ez zuten aspertzeko astirik izan, antolatzaileek tailerrak prestatu zituztelako haiarentzat. Horietako batean egurra lantzen aritu ziren,

Zurjole akademiako kideen argibideak adi entzunez.

Plazatik kanpo ere arnastu zen Santa Ana giroa. Hobe esanda, usaindu eta dastatu: herriko sei tabernak egun berezi horretako pintxo klasikoa prestatu zuten. Osagaiak, berberak denentzat: bakailaoa eta piperrak. Taberna horietako bakoitzak bere erara interpretatu zuen errezeta, eta pintxo benetan gozoak prestatu.

Produktuak erosteaz gain, herritarrek zuzenean ikusi zituzten ere hainbat artisautza lanak. Esate baterako, ehoziri-

**50 POSTU BAINO GEHIAGOTAN IKUSI ETA EROSI DITUZTE PRODUKTUAK LASARTEORIATARREK**

lanak egiten duten abilezia. Edo Zurmailu elkarteko kideek nola lantzen duten egurra. Merezitu du zuzen-zuzenean ikusteak.

**Jende andana arratsaldean ere** Eguraldi bikaina lagun, arratsaldean ere giro ederra egon zen Santa Anako artisautza azokan. Goizean hurbildu ezin izan zuten aukera aprobetxatu zuten erosketak egiteko.

Azken urteetan omenaldia izan da arretagune nagusia. Aurten erabaki dute inor ez omentzea, sukaldariak erakartzea "zaila" delako. Erabaki horrek ez die artisautza postuetara hurbiltzeko gogoia kendu herritarrei, eta, arestian esan bezala, egun osoan zehar altua izan da salerosketa erritmoa. Merezitako atsedena hartuko dute antolatzaileek orain, 35. edizioa prestatzen hasi aurretik.



Okendo plazaren itxura, igande eguerdian. TXINTXARRI



Gaztetxo honek laguntza ederra eman zion otargileari. TXINTXARRI



Urtero bezala, ehoziri-lanak egin ditu Lasarte-Oriako taldeak. TXINTXARRI



Erroskila goxoak, beti tentagarri. TXINTXARRI

# Bi gurpilen gaineko aldarriak herrian zehar

Mont de Marsan eta Zaballako espetxeak era sinbolikoan lotu ditu 'Orain Presoak' ekimenaren bizikleta itzuliak. Donostiatik Altsasura bitarteko etapa hirugarrena izan da. Lasarte-Oriatik pasa, eta presoan aldeko oihuez bete dituzte errepide eta kaleak

## Iñigo Gonzalez

Hainbat herritarrek erantzun zioten pasa den asteko asteartean Lasarte-Oriako Sarek egindako deia, eta errepidera atera ziren igande goizean, presoan aldarriak bizikleta gainean Altsasura arte garraiatzeko. Donostiatik abiatu zen bizikleta itzuli horren hirugarren etapa, eta Nafarroarantz segitu zuen gero. Sarek antolatutako *Orain Presoak* ekimenaren barruko ekintza izan da; Mont de Marsan eta Zaballako espetxeak era sinbolikoan lotu ditu asteburuan.

09:30erako prest zeuden hainbat herritar, Atsobakarreko biribilgunean: presoan aldeko banderak eta ikurrinak eskuetan, eta bizikleta gainean. Donostiatik etorri ziren txirrindulariak atzeratu egin ziren apur bat, eta kafetxo bat hartzeko aprobetxatu zuen batek baino gehiagok; presoan aldarriak lau haizetara zabaldu aurretik indarrak hartzeko. 10:30ak inguruan iritsi zen tropela, bi furgoneta aurrean zituela. Bozinek eta megafonoko soinuek iragarri zuten euren etorrera.

Esan bezala, Atsobakarreko biribilgunean egin zuten bat herriko txirrindulariek tropelarekin. Tajamar aldera



Atsobakarreko biribilgunean bat egin zuten herritarrek martxarekin. TXINTXARRI

jaitsi ziren, biribilgunean sartu eta Kale Nagusitik pasatzeko. Zumaburu auzoa igaro zuten aurrena, Oztaran gero, Basaundi, Oria, eta Nafarroarantz abiatu ziren. Arratsaldeko hiruak pasatxo iritsi ziren Altsasura. Hurrengo egunean Zaballako espetxeraino iritsi ziren. Bertan bukatu zuten bizikleta itzulia.

Aipatutako bi espetxeak modu sinbolikoan lotzeaz gain, bizikleta itzuliaren beste helburuetako bat ere bada salbuespen egoera salatzea eta harekin amaitzeko eskatzea.



Lasarte-Oriatik pasa zen. TXINTXARRI

## 'Sagartu'-rekin, zur eta lur

Hika Teatroak eta Oinkari dantza taldeak *Sagartu* ikuskizuna plazaratu zuten pasa den ostiral arratsaldean. Ikus-entzuleak zur eta lur geratu ziren aktore eta dantzarien abileziekin. Espero baino beranduago hasi zen emanaldia, zenbait dantzari Elizatze plazako igogailutik atera ezinik geratu zirelako. Ikuskizunaren kalitatea ikusita, merezi izan zuen itxarroteak.



TXINTXARRI



Gazte zinemaldiko lanak ikusi ostean, ederki egin zuten dantza. TXINTXARRI

## Azken egunez zukua atera diete Txokoetako haur eta gaztetxoek

Zinea, ur jolasak, irteerak... eta gaur, ostirala, txokoei amaiera emateko azken festa egingo dute Okendon

### Txintxarri

Ederki gozatu dituzte azken egunak Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako Txokoetako haur eta gaztetxoek. Ur jolasak, pista jolasa, Zubietara edo arrauna egitera irteerak, gazte zinemaldiko lanen emanaldia, azken misioa, Familia mila

kolore eguna... egitarau mamitsua izan dute.

Gaur, ostirala, hilabeteko abenturei amaiera emateko, azken festa antolatu dute Okendo plazan. Ttakun Kultur Elkarteak Txokoetako haur eta begiraleak aparretan ibiliko dira.

ESKERRIK ASKO  
UDAKO TXOKOEN PUZZLEA  
OSATZEN LAGUNDU  
DIGUZUEN GUZTIE!

### Familiei

Gurasoei, aiton-amonei, haurrei...

### Hezitzaileei

4 urte zenituztenetik gure programetan hazi zarete eta aurten zuek izan zarete Txokoetako gidariak.

### Herriko eragileei

Danok Kide, Salto Gela eta Arantzazuko Ama Birjina parrokia. Buruntzaldea IKT, Zabaleta Auzolan, Semblante Andaluz, Zambra, Atsobakarreko Zahar egoitza, Erketz, Katxiporreta, Jal-gune, Faktory, Euskaraldiako hamaikakoteko kideak. Aterpea, Olmi mertzeria, Ormazabal loradenda, Eziptfoto, Ana ile-apaindegia, Noaoa bidaia, Berasategi kafeak, Orbela bel-lar-denda, Kattagorri jolas denda, Maite liburu-denda eta Martin Berasategi jatetxea. Isaac Farre, Enara Iregi, Edu Galardi, Isa Fernandez de Agirre, Faktoriako eta Kuadrillategiko kideak... Diario Vasco eta TXINTXARRI aldizkaria.



# Santa Anaren omenezko eguna

## Usadioa eta kirola

Uztailaren 26a, Santa Ana eta San Joakin eguna. Lasarte-Oriako herriak urteetan era berezian ospatu du egun hori. Aurten ere, ohiturari eutsiz, herritarrek ekintzetan parte hartu dute. Egunari hasiera emateko, Ama Brigitarren komentuko kaperan meza egin dute. Elizkizunetik atera, eta herritarrek Ttakun Kultur Elkarteak prestatutako hamaiketako dastatu dute. San Pedro elizan, eguerdiko kanpaiak jotzean, Erketz EDTko lagunek agurra dantzatu dute, baita fandango edo arin-arina ere.

Arratsaldean, berriz, Santa Ana pala txapelketako irabazlea erabaki da. Aurten Xabier Arteagak eta Beñat Muruak jantzi dute txapela. Nagusitasunez irabazi diete Arluziaga-Odriozola bikoteari. Atzean lan fina egin du Arteagak, eta Muruak errematea eman dio partidari. Aurretik, hirugarren postua erabaki da. Partida horretan Jon Begiristainek eta Josu Iparragirrek Jon Pello Artetxe eta Haritz Urkia garaitu dituzte; norgehiagoka oso berdindua izan da.



Santa Anaren eta San Joakinen omenezko meza izan da Brigitarren komentuan, Felix Garitanok zuzendua. TXINTXARRI



Erketz EDTko lagunek mezan eta Santa Ana karkaban agurra dantzatu dute. Karkabara herritar ugari h



Hamaiketakoa dastatu dute Brigitarren komentura hurbildu diren herritarrek. TXINTXARRI



ur bildu dira dantzariak ikustera. TXINTXARRI



Finalean huts gutxi egin ditu Arteaga atzelariak. TXINTXARRI



Jon Pello Artetxe, tantoa errematatzen. Hirugarren postua irabazi dute Begiristainek eta Iparragirrek. TXINTXARRI



Hainbat herritar izan dira mezan. Irudian, Erketzeko kideak arkuak jartzen. TXINTXARRI



Finalean parte hartu dutenen sari banaketa; erdian, Arteaga eta Murua irabazleak, txapelarekin. TXINTXARRI

# Akusatuen triskantzak epaitu, eta sutan erre

Iritsi da urteko kontuak taulagainean jartzeko momentua. Ostegun gauean, San Ana egunez, urteko triskantzak antzeztu dituzte Okendo plazan. Urtero moduan, umoretik jorratu dituzte gaiak, baina pisuzkoak izan dira oholtzara eramadakoak.

Emanaldiari hasiera eman aurretik, desfilea egin dute antzezle eta musikariek herrian barrena, eta gauerako indarrak hartzeko afaria prest zuten. Sasoetako Saustatxo elkarteak elkartu dira aurten, eta giro ederrean jan dute mokadutxoak.

Bandoak eman dio hasiera parodiari, ohi bezala, baina modu berrian iritsi da: rap doinuek lagunduta abestu dute 2018. urteko bandoa.

Asko izan dira ikus-entzuleei aurkeztutako gaiak; kirol instalazioak, Antonio Merceroen *Verano Azul* udako abestia, eta haurtzaindegietako plaza mugatuak, besteak beste. Baina guzti horien artean ere atera da azken denboran herrian bolo-bolo ibilitako gaia: Udako Txokoak.

Horien guztien errudunak, eta hasieratik akusatuak izan direnak ere taulagainean izan dira; Jonan'tar Jonan eta Lurdes Aiquemiedo Medoy epaitu dituzte aurten, eta horiei egotzi dizkiete taularatutako nahasteak. Euren burua defendatzen saiatu dira bi akusatuak, eta abokatuaren laguntza izan badute ere, epaileak ez ditu errugabetzat hartu, eta azkenean, egindako kaltearen ordainetan, sutan erre dituzte.



Belarriprest eta Ahozibizi omendu dituzte parodian. Oroigarria jaso dute Tkakunen eskutik. TXINTXARRI



Musika, dantza eta umorea. Ezaugarri horiek ongi ezkondu dituzte parodian. TXINTXARRI



Parodiako aktoreak ostegun arratsaldeko azken entseguan. TXINTXARRI



Taldeko argazkia, arratsaldean, benetako ordua iritsi aurretik. TXINTXARRI





Lehen zatiko protagonistak: Jonmikel Bertakopeteto eta Josefa Dejerez. TXINTXARRI



Afaltzera joan aurretik desfilea egin dute, trikitilariak lagunduta. TXINTXARRI



Talde berdeko igerilariak, Zarautzera iristear daudela. ZARAUZKO HITZA

# Zeharkaldirik jendetsuenean

Itsas zeharkaldi berezia da Getaria-Zarautz. Urtetik urtera igo egin da parte hartzaileen kopurua; 2.400 inguruk egin dituzte aurten bi herriak lotzen dituen 2.850 metroak uretan. Lasarte-Oriako 26 igerilarik egin dute proba, "giro onean"

## Adrian Garcia

Badu zer bait berezia Getaria-Zarautz itsas zeharkaldiak. Beste hamaika ur irekietako proba egiten dira Euskal Herrian, baina horiek ez dute horrenbeste arreta erakartzen. Eta ez da harriztekoa; 2.900 pertsonak eman dute izena aurtengo ediziorako. Tartean, urtero bezala, lasarteoriatar mordoak. Guztira 26 herritarrek egin dituzte Getariatik Zarauzko hondartzarainoko 2.850 metroak.

Xabier Elizegik argi du zergatik den berezia: "Giroak erakartzen du jendea. Esan daiteke igeriketaren Behobia-Donostia dela". Euskal Herrian ez dago horren zeharkaldi jendetsurik. "Espainian ere ez da horrelakorik", esan du Elizegik. Badu beste antzekotasun bat Behobia-Donostiarekin. "Igeri egiten ez duen jende askok parte hartzen du. Apustu edo erronka bezala horietako askok".

Helmugara iristen lehen lasarteoriatarra izan da Elizegi. Espero baino hobeto egin du, entrenamenduetan beste urteetan baino okerrago aritu baita. "Mareagora zegoen, eta metro gehiago egin behar izan ditugu. Halere, itsasoa bare eta olatuak alde zeuden".

## Ongi pasatzera

Beste zeharkaldiekin alderatuz, maila hobexegoa ere izaten du. Ingurukoetan lehen postuetan ibiltzen da beti Elizegi. Igandean 40. lehorreratu zen (zortzigarren gizonetzkoen Master 1 kategorian).

## IGERIKETAREN DONOSTIA-BEHOBIA GISA DESKRIBATU DUTE, SORTZEN DEN GIROAGATIK

"Espainiako txapelketa izan da aurreko astean, eta sasoi betean etorri dira gazteak".

Aintzane Usandizagak lehen Getaria-Zarautz izan du aurtengoa. "Udan beti egin dut igeri hondartzan, baina iaz hasi nintzen igeriketaren entrenatzen". Buruntzaldea IKTKo Master atalean aritzen da lasarteoriatarra. Iaz Donostiako zeharkaldi pare bat egin ostean, aurten animatu da Getaria-Zarautzera. "Seguru aski ezagunena izango da. Entzunda nuen hari buruz, eta horregatik erabaki nuen egitea. Gainera, itsasalde hori oso ederra da".

Gustura ibili da igerian Usandizaga, bere erritmora. Jende asko egon arren, arazorik ez du izan irteeran, eta estutasun gehiegi igaro gabe egin du aurrera. "Giro oso ona zegoen. Atzeko taldeetako batean

nengoenez, jendea igeri egitera bai, baina batez ere ongi pasatzera aterata da".

## Lehenengo aldiz

Eneritz Mendiluzek ere lehenengo zeharkaldia izan du: "Zoragarria izan da". Ahizpak animatuta eman zuen izena, "erronka berri gisa". Igeriketaren jardundakoa da bera, baina itsaso zabalean igeri egiteak errespetua ematen zion. Orain arte. "Distantziak ez ninduen beldurtzen, bai, ordea, ur azpian aurkitu nezakeenak". Halere, igandean ez zen horretaz akordatu. "Oso gustura egin dut igeri. Burua altxatzen nuen bakoitzean paraje izugarriak ikusten nituen".

Dena den, Mendiluzek nabari izan du aglomerazioa. Getariako portua estu samarra da, eta igerilariak pilatu ohi dira irteeran. "Hasiara kaos bat izan

da, denek aurrera egin nahian". Baina helburua ongi baino hobeto bete du. Bere ahizparekin eta haren bi lankideekin, laurak batera ailegatu dira Zarauzko helmugara. "Hurrengo urterako gorri markatu dut data egutegian".

## Atal berriak Buruntzaldean

Buruntzaldea IKTK hiru atal estreinatuko ditu 2018-2019 denboraldian: urpoloa, igeriketa sinkronizatua eta kirol sorospena. Gainerako ataletarako ere izen emateak martxan jarri ditu igeriketa taldeak.

## Herritarren denborak

Guztira 26 herritarrek parte hartu dute Getaria-Zarautz itsas zeharkaldian. Gainera, bi infantilek ere lehiatu dute gaztetxoaren proban (800 metro).

### Absolutuak

- Xabier Elizegi Beloki 00:37:27
- Irati Arzallus Garzon 00:39:34
- Juan Vicente Martin Baños 00:39:34
- Izaskun Salazar Badiola 00:42:21
- Aimar Sukunza Gomez 00:44:46
- Enaitz Ibarburu Zuriarrain 00:45:06
- Imanol Arteaga Aizbitarte 00:45:55
- Garikoitz Lopetegi Uria 00:46:44
- Andoni Illarreta Izeta 00:47:18
- Laura Igea Fuentes 00:48:48
- Iñigo Arias Antiguiedad 00:48:51
- Asier Garcia Garcia 00:49:25
- Mikel Izagirre Aramendi 00:50:52
- Xabier Mujika 00:53:32
- Elixabet Arteaga Aizbitarte 00:55:01
- Aintzane Usandizaga Lopez 00:55:06
- Iratxe Beitia Barroso 00:55:29
- Eneritz Mendiluze Erkizia 00:56:18
- Naiara Mendiluze Erkizia 00:56:20
- Ibai Izagirre Agote 00:56:35
- Gorla Olaiz Garmendia 00:57:19
- Oscar Gil Rubio 00:57:53
- Ruben Renilla Colado 01:02:09
- Leire Blazquez 01:02:16
- Yoana Gonzalez Jimenez 01:09:20
- Igor Amantegi Ibarzabal 01:13:45

### Infantilak

- Joane Arzallus 13:16
- Nora Imaz 13:43

# "Indarra ez da nahikoa, teknika ere behar da"

**MAIDER REKONDO** LOKE-KO DISKO ETA PISU JAURTITZAILEA

Euskal selekzioarekin debuta egin, eta Federazio Torneotik marka pertsonala onduta itzuli da atleta gaztea. Espainiako txapelketan laugarren izan da, 23 urtez azpikoetan

## Adrian Garcia

Denboraldia bukatuta, merezitako oporrak hartzeko desiratzen dago Maider Rekondo (Lasarte-Oria, 1997). Azken hilabeteetan izan ditu denboraldiko txapelketa garrantzitsuenak; Espainiako txapelketa eta Federazio Torneoa. Disko eta pisu jaurtitzailak euskal selekzioarekin egin du debuta azken horretan. Diskoan marka pertsonala onduta bueltatu da herrira.

**Zer moduz Federazio Torneoa? Euskal selekzioarekin debuta egin duzu.**

Oso ondo, nahiz eta maila altua zegoen. Soilik diskoan lehiatu nintzen. Rankingean bederatzigarren nago, baina txapelketa zazpigarren tokian amaitu nuen. Espero nuena baino hobeto, eta, gainera, marka pertsonala lortu nuen: 40,80 metro.

**Selekzioarekin lehen aldian zenuen. Urduritasun puntu bat eman al dizu horrek?**

Iaz ere deitu zidaten, baina azterketa garaia nuen, eta ezezkoa eman nien. Nahiko lasaia naiz, eta ez naiz urduri jartzen. Espainiako txapelketan



Maidar Rekondo, Merceroko arkupetan. TXINTXARRI

agian gehiago, domina jokoan baitago.

**Hurrengo urtean ere hautatua izateko aukerak dituzu, orduan.**

Hala pentsatzen dut. Nire markatik gertu daude batzuk, baina maila honi eusten badiot berriro joan naiteke.

**23 urtez azpiko kategorian lehiatzen duzu. Halere, Federazio Torneoa absolutu mailan aritu zara.**

Bai, lehiakide gehienak absolutuak ziren. Halere, bageunden ere kirolari gazte batzuk.

**Espainiako txapelketa ere izan da orain gutxi. Zer moduz ibili zinen? Laugarren egin nuen diskoan, eta zazpigarren pisuan. Pisuan markatik urruti ibili nintzen, nahiz eta oso maila altuegirik ez zegoen; nahiko merke zeuden dominak.**

**Hurrengo urtean izango da 23 urtez azpiko kategorian zure azken urtea. Domina lortzea izango al da helburua?**

Ikusiko da. Tenerifera noa ikastera [Ingeniaritza Mekanikoa ari da egiten] lehen lauhilekoan, eta ez dakit atletismoan entrenatuko dudana. Errugbia probatzea gustatuko litzaidake. Nire anaiak egiten du. Bueltan gutxieneko marka lortu beharko nuke sailkatzeko.

**Nahiago al duzu disko jaurtiketa pisua baino? Zergatik?**

Gehiago gustatzen zait diskoa. Pista estalian pisua bakarrik egiten dut, diskoa ez dagoelako. Orduan aire librean diskoa bakarrik egitea gustatzen zait. **Nolakoak izaten dira zuen entrenamenduak? Zer lantzen duzue?**

Egia esan ez dut asko entrenatzen, ikasi egin beharra dut eta. Astean bitan, gehienez hirutan joaten naiz. Egun batean teknika lantzen dugu, eta bestean indarra; pisua altxatzen ibiltzen gara. Indarra hartu behar izaten da. Hirugarren eguna egiten badut, aldapa batzuk eta hesiak saltatzen ditut.

**Noiz hasi zinen atletismo egiten? Zergatik?**

Orain bost bat urte. Batez ere lagunak zeudelako hasi nintzen. **Eta jaurtiketatik zerk erakarri zintuen?**

Nik berez pertika jauzia egin nahi nuen, baina nire gorpuzkeragatik jaurtiketara bideratu ninduten. Atletismoa giroagatik gustatzen zait, jendearengatik. Eta pisua jaurtitzaren gustura egoten naiz. **Indarra bakarrik ez, teknika ere beharko da urruti jaurtitzeko, ezta?**

Indarra edukitzearekin bakarrik ez du balio, koordinazioa behar da. Baldarra bazara, ez duzu zereginik. Halere, pisuan gutxieneko indarra behar duzu, teknika egiteko beharrezkoa baita. Diskoan teknikoagoa da. Abiadura behar da, baina gero eta azkarrago, orduan eta zailagoa da jaurtitzea. **Zeintzuk dira modalitate horretako zure kirolari erreferenteak? Jarraitzen al duzu goi mailako atletismoa?**

Diskoan bada Sandra Perkovic izena duen bat, Kroaziakoa. Dena irabazten du, nahi duen bezala. Instagramen jarraitzen ditut, eta ikusten ditut bideoak. Kontua da ni ezkerre naizela, eta bera ez. Eta horrek txokatu egiten du. **Jaurti aurreko une horiek nola izaten dira? Kontzentrazioa beharrezkoa izango da, ezta?**

Kontzentratu eta jaurtiketa irudikatu beharko litzateke. Egia esan nik ez dut hori egiten, joan eta jaurti egiten dut, besterik gabe. Entrenatzaileak esaten dit: "Maidar, egon lasai eta pentsatu". Nik nahiago dut ateratzen zaidan bezala jaurtitzea. Teknika pentsatzen badut okerrago ateratzen zait.

**Bakarkako kirolak gogorrak al dira taldekakoekin alderatuz?**

Taldekako kirol batean behartuta zaude dena ematera, bestela taldekideak izorratzen dituzu. Hemen zerbait gaizki egiten baduzu zuk ordaintzen dituzu ondorioak.

**Fisikoki kirol gogorra dirudi. Lesioak izaten al dira maiz?**

Ez gehiegi; jauzi hirukoitzean gehiago izaten dira, inpaktu handiagoa duelako. Behin orkatila okertu nuen, baina bestela ez naiz sekula lesionatu.

## Ligako sailkapena iraultzeko itxaropena du Fernandezek

Hondarrbian ari da lehiatzen arraunlari lasarteoriatarra, goi mailan; laugarren postuan daude Euskotren Ligan

### Txintxarri

Inork ez zuen esan erraza izango zenik. Goi mailan ari da lehiatzen Intza Fernandez arraunlaria, Hondarribiko traineruan. Halere, Euskotren Liga ez dute nahi bezala hasi, eta laugarren postuan daude egun. Azken asteburuko estropadetan ere ez dira behar bezala ibili; laugarren egin dute. Dena den, hirugarrena puntu

gutxira dute, eta abuztuko lehiaketetan sailkapena iraultzeko itxaropena du Lasarte-Oriakoak. "Helburua da hirugarren egitea, kategoriaz jaisteko kanporaketak saihesteko", kontatu dio TXINTXARRI-ri.

Hondarribiko taldea berria da, eta, beharbada, horregatik ari zaie zertxobait kostatzen.

"Eskarmentudun jendea dugu gure artean, baina taldea hutsetik hasi da. Hasieran ez nuen uste Euskotren Ligarako sailkatuko ginenik, baina sekulako maila eman genuen".

Denboraldiko une garrantzitsuenan iristear du arraunlariak. Ia asteburuko jokatu dute estropada, eta irailan Kontxako Bandera dute.

Aurten emakumezkoen traineruetan bi liga sortu dituzte. Goi mailakoan, Euskotren Ligan, lau taldek lehiatzen dute (Orio, Hondarribia, San Juan eta Gu-Arraun). Liga ETEn bederatzita talde daude, tartean Donostiarra, Fernandezek talde ohia.



Hondarribiko trainerua, itsasoratzean. HONDARRIBIA ARRAUN ELKARTEA

# Urrezko Koparako motorrak berotzen

Abuztuaren 15ean jokatu den Urrezko Koparako motorrak berotzen jarraitzen dute jockeyek eta zaldiek. Diputazio Sarian nor baino nor gehiago aritu dira asteburuan; 'Le Rafale' zaldi frantsesa izan da azkarrena. 'Red Onione' ere eman du zeresana

## Iñigo Gonzalez

Gero eta gertuago dago zaldi lasterketen udako denboraldiko zita garrantzitsuena: Urrezko Kopa. Abuztuaren 15ean jokatu da, asteazkenarekin, 17:30etik aurrera. Borobila izango da aurtengo proba: 50 urte betetzen ditu aurrenekoz ospatu zenetik. Hori dela eta, motorrak berotzen ari dira zaldiak, jockeyak eta prestatzaileak. Gipuzkoako Diputazioko saria jokatu zuten pasa den asteburuan. *Le Rafale* zaldi frantsesa izan zen azkarrena. J.L. Borregok gidatu zuen zaldia bi kilometro pasatxoko proban. Alegria zalditegia arduratzen da animalia zaintzeaz. *Celestin's* eta *El Puntalek* osatu zuten igande arratsaldeko laugarren lasterketako podiuma.

Urrezko Koparako bi prestaketa proba jokatu ziren igandean. *Le Rafale* irabazi zuen horietako bat, eta *Red Onion* ingelesak bestea. Aditu eta zaleen artean zeresan handia sortu du azken egunotan. Joan den urtean Poule proba entzutetsurako prestaketan parte hartzeraz iritsi zen zaldia, baina orduz geroztik asko jaitsi zuen maila. Hori ikusita, bere aurreko jabeek saldu egin zuten aurtengo otsailean, eta, gaur egungo prestatzaileen eskutik, maila onena ari da berreskuratzen



Bruneta zaldia gailendu zen Yeguada Torredueiro sarian. TXINTXARRI

apurka-apurka. Igandean erakutsi zuen ezustea eman dezakeela abuztuaren 15ean jokatu den Urrezko Kopan.

Asteburu honetan Kriterium Nazionala jokatu da, besteak beste. 17:30ean hasiko dira lasterketak, astero bezala.

Abuzturako ere, hainbat hitzordu; 5ean, igandearrekin, Maria Kristina Hotela saria. Astebete beranduago, Eusko Jaurlaritzarena. 15ean, esan bezala, Urrezko Kopa. Hilaren 26an berriz, Luckia Casino saria. 17:30ean hasiko dira guztiak.

## Abuztuko probak

**Abuztuak 05, igandea**  
Maria Kristina Hotela saria.

**Abuztuak 12, igandea**  
Eusko Jaurlaritza saria.

**Abuztuak 15, asteazkena**  
Urrezko Kopa.

**Abuztuak 26, igandea**  
Luckia Casino saria.



EUGENIO POZO

## Ordiziako Txapel Gorria, etxera

Ordiziako Txapel Gorri txapelketa irabazi du Buruntzazpiko Asier Pozo txirrindulari gazteak. Caja Ruraleko Enekoitz Azparrenek hautsi du lasterketa aldapa gora, baina behera metro batzuk atera ditu Pozok, eta lasterketa irabazi du. Bigarren taldeko batean sartu da Beñat Carbayeda taldekidea, eta hirugarren postua lortu du.



TXEMA VALLES

## Joshe Zapiraini omenaldi beroa

Ostadarreko bola jaurtitzailerek eta Gipuzkoako bola eta toka federazioak omenaldi xumea egin diote Joshe Zapiraini, asteazken arratsaldean.

Senide eta lagunak iritsi bitartean, bola jokoan aritu dira bertaraturako kideak, eta baita tokan ere, eta sari ederrak jasota amaitu dute lehiaketa. Erakustaldi atsegina eskaini dute Michelingo joko eremuan bildutakoek.

## Raul Gomez korrikalaria, garaipenaren bidetik

Irungo krosean nagusitu da lasarteoriatarra; Kirolprobak Liga eta Behobia-Donostia ditu udazkeneko helburuak

### Txintxarri

Denboraldi bikaina egiten ari da Raul Gomez Margallo Lasarte-Oriako korrikalaria. Santiago eguneko krosean erraz nagusitu zen joan den igandean Irunen; 8.250 metroak osatzen lehena

izan zen. Denboraldiko seigarren garaipena du korrikalari beteranoak.

Urte dezente daramatza Margallok goi mailan. Kirolprobak atariak antolatzen duen liga irabazi du azken bost

urteetan. Aurten ligako hiru lasterketa besterik ez ditu jokatu, eta 23. postuan da. Baina iragarri du lehian egongo dela. "Azken probetan erabakitzen da. Joan den urteetan azken egunean irabazi nuen liga. Oraindik baditut nire aukerak".

Ondoko emaitzak lortu ditu proba puntuagarrietan: Betelun seigarren, Zumaian hirugarren, eta, azkenik, Hernaniko Sagar Lasterran bigarren egin du. Oporrak medio, huts egin behar izan du askotan. Baina



Raul Gomez Margallo. JAVIER ZATARAIN

udazkenekoetan sailkapena irauli dezakeelakoan dago.

Beste hainbat lasterketetan ere parte hartu du. Guztira hemeretzi egin ditu, eta seitan igo da podiumaren lehen koskara. Loiolan, Amaran eta Adunan ditu hurrengo hitzorduak.

Lasterketa motzak ditu gogoko, hamar kilometroko azkarrak. Baina uda partean entrenamendua aldatuko du, Behobia-Donostia baitauka buruan. "1:08 ordutik jaiste gustatuko litzaidake".

## ZORION AGURRAK




**Oier**  
Zorionak maitia zure zortzigarren urtebetetzean. Asko Maite zaitugu! Aita, ama eta Aroaren partetik.



**Aiur**  
Zorionak maitia, ze handia, dagoeneko 4 urte!!! Eskerrik asko zure grazia eta irribarra oparitzeagatik, gure bizitza egunero hobetzen dezu... asko maite zaitugu bihotza!!! Amatxo, Katixa, Javier eta Biula.



**Katixa**  
Eta jada hamahiru urteee, hamahiru muxu, hamairu irri...maite zaitugu!!!



**Danel**  
Zorionak gure etxeko Cat Noir txikia! Gure bizitza abentura bihurtu duzu, eta gehiago biziko ditugu! Muxu handi bat! Aitaxo, amatxo eta Luken.



**Haritz**  
Zorionak zure 5. urtebetetzean! Muxu handi bat familiaren partetik!



**Nerea**  
Zorionak!! Egun ederra igaro izana espero dugu!! Ttakuneko lankideen partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu TXINTXARRI-ren bidez zoriontzeko:

### Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Asteazkeneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## JAIOTAKOAK

**Iraide Lopez Gonzalez.** Uztailaren 17an.

## HILDAKOAK

**Hermenegildo Arrastia Martinez.** Uztailaren 23an.  
**Juan Luis Aizpurua Lizarribar.** Uztailaren 21n.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 27 GANDARIAS-URIBE  
Larunbata, 28 URBISTONDO  
Igandea, 29 URBISTONDO  
Astelehena, 30 ACHA-ORBEA  
Asteartea, 31 GIL  
Asteazkena, 1 DE MIGUEL  
Osteguna, 2 LASA

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**  
ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTERI AEK: 943 372 863

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINAZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## OHARRAK

### Ur mozketa, abuztuaren 1ean

Zabaleta Berriko urbanizazioko obrak direla eta, ur hoditerien konponketa lanak egiteko Lasarte-Oriako zenbait kaletan ur mozketa egingo dute abuztuaren 1ean. Mozketa goizeko 8:00etatik 14:00etara izango da.

Ura moztuko duten eremuak hauek dira: Zabaleta auzoa, Hernani bidea, Bustindegi kalea, Pepenea kalea, Osina kalea, Basotxo Plaza, Illarratueta bidea, Gonagorri kalea, Buenos Aires aldapa, Pinutegi kalea, Gaztainzulo kalea, Tellerigain kalea, Larrekoetxe bidea, Teresategi kalea, Goiegi urbanizazioa, Loidi kalea (1,2,3,4,5 ezik), Antxota kalea, Sasoeta ibilbidea, Oriamendi kalea, Urdaburu plaza, Urko plaza, Aralar plaza, Buruntza kalea, Jaizkibel plaza, Uzturre plaza, San Marcial plaza, Adarra kalea, Tximistarreta plaza, San Francisco kalea, Bista eder kalea, Oztaran plaza, Arranbide kalea, Txartel kalea, Tribuna kalea, Iturri goxo kalea, Zelaialde kalea eta Mirakanpos Urbanizazioa.

Gedi enpresak sortu daitezkeen eragozpenengatik barkamena eskatzen du.

### Gazteen entsegu-lokalei buruzko bilera

Lasarte-Oriako Udalak Gaztelekuan dauden entsegu-lokalen eskaera egin dute taldeak uztailaren 27an, arratsaldeko 18:30ean bilera bat egitera deitu ditu.

Bileran lokalen erabilerari buruzko azalpenak eta entseguen egutegi eta ordutegia osatuko da.

### Udaletxea itxita egongo da San Inazio bezperan

Uztailaren 31n, asteartea, San Inazio eguna ospatzen dela eta, Lasarte-Oriako Udalak jakinarazten du uztailaren 30ean, astelehenean udaleko bulegoak itxita egongo direla.

### Udal kirol-instalazioak itxita

Lasarte-Oriako Udalen kirol-instalazioek bi astezko geldialdia egingo dute, uztailaren 22tik abuztuaren 5era, bi egunak barne.

Epe horretan garbiketa eta mantentze-lanak egingo dira.

## SUDOKUA

8			1	7	2	9		
1	6			9	4			7
		7				1	8	
	9	6	5			2		8
				8	6	4	9	3
	8		3					5
		8		2	5			9
4					8	5		1
	3	5	9		1	8	2	

## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

#### ALOKAIRUAN EMAN

Pisua alokatzen dut Pintore kalean. Barrualdera ematen du. Bigarren pisua da eta igogailua du. Bi logela, jangela-egongela eta komuna du. Berritua eta altzariz homitua. 667 075 139.

### LANA

#### ESKAINZA

Zerbitzaria behar dute llargi tabernan. Interesa duenak telefono honetara deitu dezala: 666 46 15 95.

### SALEROSKETAK

#### SALDU

Kotxea Salgai. Renault Clio, 2006. Hiru atekoa,

ondo zaindua eta gutxi erabilia. 49.900 km. 1.500 euro. Telefonoa: 687 355 095.

Motorra saltzen da. Piaggio ZIP 50 2T. Zuria eta oso ondo zaindua. IATA marxoan pasata eta 25 urtetik beherakoek erabiltzeko segurua 2019ko apirilera arte ordainduta. 1000 euro. Harremanetarako: 610 953 258.


Kotxe berria saltzen da, Mikrokrrar marka, karnetik gabea. Interesatuak deitu 608 417 794 edo 670 236 356 telefonoetara.

## ESKELAK JARTZEKO: 943 37 14 48 edo TXINTXARRI erredakzioa

- Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€

**Txintxarri aldizkaria: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan**

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

### Administraria

Nerea Garziarena.

### Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

### Publizitatea

Arantxi Zulaika.

### Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odrizola, Gorka Alvarez,  
Jexux Artebe, Maider Galardi,  
Mikel Yarza, Nerea Segura eta  
Aizpea Amas.

### Banatzaleak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,  
Iñigo Ibarburu, Mikel Valdes,  
Maialen Goikoetxea.

### Informatikoa

Benat Gonzalez

### PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
publizitatea@ttakun.eus

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

### Legu Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 27

### LASARTE-ORIA Tailerra

Zapitxo erabiliz eskulanak egingo dituzte haur eta gaztekoek. *Udako tailerrak auzoetan* ekimenaren ekintza. Isla plaza, 11:30ean.

### LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa

Lur Usabiagak haurrei zuzendutako ipuin kontaketa egingo du, *udako tailerrak auzoetan* ekimenaren barruan. Golf Plaza, 12:00etan.

### LASARTE-ORIA Herrilana

Gaztetxea margotzeko herrilana egingo da. Uztailbeltz egitarauaren barruko ekintza. Elebeltz Topagunea, 17:30ean.

### ZUBIETA Jaiak

Zubietako Jaietan umeen eguna antolatu du Zubietako Jai Batzordeak: 10:00etan, Haurren jolasak. 13:30ean, Umeen bazkaria. Bakoitzak berea eraman behar du eta postrea eta sorpresa jai batzordearen esku. 16:00etan, Puzgarriak. 17:30etan, Txokolatada eta buruhandiak. Ondoren, Apar festa. 20:00etan, Poteo herrikoa, txosna. Txalagore taldearen emanaldia. 21:00etan, herri afaria. 00:00etan, Laiotz taldearen dantzaldia. Zubietan, egun osoa.

### ASTIGARRAGA Santio Jaiak

Santio Jaien jardunaldi berria izango da: 11:00etan, Haur parkea, Foru plaza. 16:00etan, Kantu kafea, Norberto Almandoz plaza. 17:00etan, Ahulki jokoa, txosna. 17:00etan, Haur parkea, Foru plaza. 17:30ean, Fiesta Imperial bikotearekin dantzaldia, Norberto Almandoz plaza. 19:30ean, Kilimak taldearen kontzertua, txosna. 20:00etan, *Fresh Cool*. Tio Teronen semeak taldearen umorezko ikuskizuna, Pilotari kalea. 23:00etan, DJ Txurru, Joseba Barandiaran plaza. 23:30ean, Yacovlev eta Bisai taldeen kontzertua eta Dantzall Sound DJaren emanaldia, txosna. Astigarraga, egun osoa.

## LARUNBATA 28

### LASARTE-ORIA Herrilana

Gaztetxea atontzeko herrilana egingo da. Uztailbeltz egitarauaren barruko ekintza. Elebeltz Topagunea, 17:30ean.

### ZUBIETA Jaiak

Zubietako Jaietan jubilatuen eguna antolatu dute: 09:00ean, meza, Santio eliza. 14:00etan, Jubilatuen bazkaria, Barazar jatetxea. 16:30ean, Gaztetxoan antzerkia, Kaxkape. 18:00etan, Herri kirol saioa. Kañamarek aita-semeak aizkoran eta Jokin Auzmendi harria jasotzen. 19:30ean, Sardin eta piper jatea. 23:30ean, Txorroskilo eta Rukula taldeen kontzertuak. Ondoren, Erromeria taldearekin goizaldera arte dantza egiteko aukera. Zubietan, egun osoa.

### ASTIGARRAGA Santio Jaiak

Santio Jaien azken eguneko egitaraua: 07:00etan, Barrene partidak, Txomiñenea pilotalekua. 10:00etan, Haur eta gazteentzako Txirindu-Igoera. Irteera neutralizatua Foru plazatik. 11:00etan, Marmitako Lehiaketa herrikoa, Foru plaza. 12:30ean, Helduen Santio Igoera Herrikoa bizikletan. Irteera neutralizatua Foru plazatik abiatuta. 14:00etan, Marmitako bazkari herrikoa, Foru plaza. 16:00etatik 19:30era, Slide ur-txirrista, ikastolatik behera. 16:30ean, Iratzar taldearen erromeria, Foru plaza. 17:30ean, Bingoa, Galtzaur elkarteak. 19:00etan, Kanbahiota Zirkoa Apeztegi plaza. Euria eginez gero, ikastolako atarian egingo da. 20:00etan, Errumaniako musika, dantza eta janari dastaketa, Joseba Barandiaran plaza. 23:00etan, Zezensuzkoa, Joseba Barandiaran plaza. 23:30ean, Nogen taldearen kontzertua, Joseba Barandiaran plazan. 00:30etan, *Rock-Kalean*, Joseba Barandiaran plazatik abiatuta. 00:30etan, Elizagoien ahizpak taldearekin erromeria, txosna. Astigarraga, egun osoa.



### LASARTE-ORIA San Inazio Jaiak

Basaundi bailarako auzotarrek San Inazio jaiak ospatuko dituzte. La Esperanza Bizilagun elkarteak eta Buruntz Azpi elkarteak egitarau oparoa osatu dute adin guztietako auzotarrei begira. Uztailak 30 eta uztailak 31.

## IGANDEA 29

### LASARTE-ORIA Hitzaldia eta dokumentala

EH-Donbass elkartasun Komiteari buruzko hitzaldia egin eta *Donbass: Gerra Europaren Bihotzean* dokumentala eskainiko da. Uztailbeltz egitarauaren barruko ekintza. Elebeltz Topagunea, 18:30ean.

### ZUBIETA Jaiak

Zubietako Jaietako jardunaldi berria: 12:00ean, Sagardo dastaketa eta pintxoak, Errebote plaza. Egurdian, bertso poteoa eta II. Puntu txapelketaren sari banaketa. 15:00etan, Paella jana. 18:30ean, Patxi eta konpainia taldearekin dantzaldia. 22:00etan, Bertsolariak: Eli Pagola, Unai Mendizabal, Iker Zubeldia eta Aitor Mendiluze. Gai-jartzailea: Amaia Agirre. Zubietan, egun osoa.

## ASTELEHENA 30

### LASARTE-ORIA Musika eskola

Musika eskola saioa izango da. Uztailbeltz egitarauaren barruko ekintza. Elebeltz Topagunea, 17:30ean.

### LASARTE-ORIA San Inazio Jaiak

San Inazio eguna ospatuko dute Basaundi bailarako auzotarrek La Esperanza Bizilagun elkarteak eta Buruntz Azpi elkarteak antolatuta: 18:00etan, Buruhandiak. 18:00etan, Apar festa, tenis pista. 18:30ean, Ezkondu eta

ezkondugabeko taldeen arteko futbol partida, frontoiaren ondoko areto-futbol pista.

19:00etan, Zumba erakustaldia, Basaundi bailarako plaza. 19:30ean, Pintxo pote auzoko tabernatan. 19:30ean, Gautxori txaranga. 21:00etan, Ibai Berriak taldearen emanaldia, Basaundi bailarako plaza. Basaundi bailara, 18:00etatik aurrera.

### ZUBIETA Jaiak

Zubietako jaietan gau pasa eguna antolatu dute: 16:00etan, Mus txapelketa. 15:30ean irekiko da izena ematea. 17:30ean, Toka txapelketa. 00:00etan, Kontzertuak: Koban Parabellum DJ Seymar Zubietan, 16:00etatik aurrera.

## ASTEARTEA 31

### LASARTE-ORIA San Inazio Eguna

San Inazio eguna ospatuko dute Basaundi bailarako auzotarrek La Esperanza Bizilagun elkarteak eta Buruntz Azpi elkarteak antolatuta: 08:00etan, galeper-jaurtitzea, Zapal zelaietan. 09:00etan, Martxa erregulatua. Irteera Basaundi bailarako plaza. 11:00etan, Haur jolasak eta buruhandiak, Basaundi bailarako plaza. 11:30ean, Meza nagusia, Oriako Karmengo kaperan. 12:00etan, Txoko herrikoa, frontoian. 12:30ean, Bote eta toka txapelketak, Basaundi bailarako plaza.

14:30ean, Bazkaria, Buruntz-Azpi elkarteak.

16:30ean, Mus txapelketa, Basaundi bailarako plaza. 17:00etan, Gaztelu puzgarriak, Basaundi bailarako plaza. 17:30ean, Haurrentzako askaria. 18:30ean, Patata-tortilla txapelketa, Basaundi bailarako plaza. 20:00etan, jai amaiera musikala Indian Feather taldearen eskutik. *Kultur Kale Zikloko* kontzertua. Basaundi bailara, egun osoa.

### LASARTE-ORIA Bazkide Eguna

Lasartearra elkarteak bazkidearen eguna antolatu du: 11:30ean, txakolin edatea, Lasartearra elkarteak. 11:45ean, zendutako bazkideak gogora ekarriko dituzte ekitaldi xume batekin, Lasartearra elkarteak. Ostean, txupina eta auzoko tabernatan poteoa egingo dute trikitilariak lagunduta. 14:30ean, bazkaria, Lasartearra elkarteak. Lasartearra elkarteak, 11:00etik aurrera.

### ZUBIETA San Inazio Eguna

San Inazio egunarekin amaiera emango diete jaiak Zubietan: 09:00etan, Zikiroa prestatzen hasi. 10:30ean, Meza nagusia, Santio eliza. 11:30ean, zubietarren arteko errebote partida. 14:00etan, Zikiro jatea. 18:00etan, Gorritiren showa. Ondoren, buruhandiak. 23:00etan, herriko jaien amaiera traka eta suzirikien. Amaitzeko, musika, txosna. Zubietan, egun osoa.

## KOMIKIA



## PUBLIZITATEA

**Oporretara goaz!**

Hurrengo Txintxarri aldizkaria irailaren 7an kaleratuko dugu.  
Oharrak, zorion agurrak, gutunak... bidaltzeko:  
txintxarri@txintxarri.eus • 688 68 35 10



txintxarri



## Elikatu euskara!

Ttakuneko bazkide izanda, herriko euskararen eta kulturaren sustapenean lagunduko duzu

### Zer babestuko duzu?

- **Haur eta gazteen euskarazko aisialdia**  
Amaraun kluba  
Gazte kluba  
Kuadrillategi  
Faktoria  
Txokoak  
Udako kanpaldiak
- **Helduen euskarazko aisialdia**  
Plaza Dantza eta Muxikoak  
Solaskide programa  
Titare joskintza taldea  
Helduentzako tailerrak
- **Kultur ekintzak**  
Euskal Inauteriak  
Udaberriko bertso saioa  
Azkorteke erromeria  
Sorgin Dantza  
Santa Ana parodia  
Euskal Jaia  
Euskararen Maratoia  
Euskaraldia  
San Tomas azoka  
Olentzerori ongi etorria
- **Txintxarri aldizkaria**
- **Irakutrezin aldizkaria**
- **Ikastaroak**

### Zein abantaila izango dituzu?

- Lehentasuna zenbait izen-emateetan
- Deskontuak
- Zozketak
- "Ttakunberri" buletin digitala
- Ttakuneneako gune orokorra erabiltzeko aukera\*
- Batzar orokorreko erabakietan parte hartu eta proposamenak luzatzeko aukera

\*Ttakunenea gune gastronomikoa ere erabiltzeko, bazkide kuota 174€-koa da

Urteko  
bazkidetza  
**54€**

